

## **Anjel Lertxundik 1997 urtean idatzitako lana osatu du eta ‘*Martin Ugalde mendeurrena. Herriminaren prosak*’ liburua argitaratu eta banatuko du Udalak**

- **Alex Huitzi: “Andoaindar guztiek Martin Ugaldereen bizitza irakurri eta ezagutzeko aukera izatea nahi dugu”**
- **Edizio berri eta osatu honek 1997 urtetik, Ugalde zendu zen 2004 urtera arteko gertakarien narrazioa jasotzen du**

Herriko seme kutunaren jaiotzaren mendeurrena ospatzeko, Andoaingo Udala eragile ugariarekin lankidetzan sustatzen ari den ekintza sorta zabaleran barruan, Martin Ugaldereen omenez Anjel Lertxundik idatzitako glosak osatu eta berrargitaratu ditu Euskara Sailak. Lana, *Martin Ugalde mendeurrena. Herriminaren prosak* izenburupean plazaratu da eta Andoaingo Euskararen Erroldan izena emana duten herritarrek doan jasoko dute etxean. Liburua gaur aurkeztu dute egileak berak eta Alex Huitzi, Euskara zinegotziak.

1997 urtean Anjel Lertxundik (Orio, 1948) idatzi zuen *Martin Ugalde: leialtasun baten historia*. Glosak lanaren osaketa da mendeurrenaren harira argitaratu den liburu berria. Hain zuzen, urte hartan Rikardo Arregi Kazetaritza Sarietan ohorezko aipamena jaso zuen Martin Ugaldek, euskarazko kazetaritzari egindako ekarpen bikaina eskertzeko. Urte horretan bertan izendatu zuten Ugalde herriko seme kutun, hain justu. Orioko idazleak Ugalderi eginiko opari sentitua izan zen hura, bi idazleen elkarri zioten estimuaren eta zeukaten harreman estuaren emaitza.

Aurkezpen ekitaldian Alex Huitzi zinegotziak azaldu duenez, “lehen edizioa atera eta berehala agortu zen eta liburu horren falta sumatu da orduz geroztik, eskaera ugari egon baitira urteetan eta eskuratzeko modurik ez da egon”. Hala, “behar horri erantzun eta hutsunea bete eta osatzera dator berrargitalpen hau”, Huitziren hitzetan. Edizio berri eta osatu honek 1997 urtetik, Ugalde zendu zen 2004 urtera arteko gertakarien narrazioa jasotzen duela azaldu du zinegotziak. Honela, “Andoaingo idazlearen bizitza osoa hartuko du liburu berriak, baita osatu ere, eta andoaindar guztiek, honela, Martin Ugaldereen bizitza irakurri eta ezagutzeko aukera izatea nahi dugu”.

Gauzak horrela, liburua doan banatu da gaurko aurkezpen saioan eta doako banaketa ere egingo da ostiralean, hilak 19, egingo den Rikardo Arregi Kazetaritza Sariaren emate ekitaldian. Herritarrengana iristeko, Andoaingo Udalak Euskararen Erroldan izena emana duten herritarrei etxera helaraziko die liburua, ale bana familia unitateko. Banaketa hauetatik kanpo, interesa dutenek Urigainen dauden Euskara Sailaren bulegoetan eskuratu ahal izango dute ale bat, edizioa agortu arte.

## **El Ayuntamiento publica y distribuye el libro '*Martin Ugalde mendeurrena. Herriminaren prosak*', la versión completada por Anjel Lertxundi de las glosas del 1997**

- **Alex Huitzi: "Queremos que todos las personas andoaindarras puedan leer y conocer la vida de Martin Ugalde".**
- **Esta nueva edición completada recoge la narración de los hechos desde 1997 hasta 2004, año del fallecimiento Ugalde.**

Como conmemoración del centenario del nacimiento del hijo predilecto de Andoain, el Departamento de Euskera ha elaborado y reeditado las glosas escritas por Anjel Lertxundi en homenaje a Martin Ugalde, dentro de la amplia serie de actividades que el Ayuntamiento de Andoain está impulsando en colaboración con numerosos agentes. La nueva edición se ha publicado bajo el título *Martin Ugalde mendeurrena. Herriminaren prosak* y las personas inscritas en el censo del Euskara de Andoain lo recibirán gratuitamente en casa. El libro ha sido presentado hoy por el propio autor y el concejal de Euskera, Alex Huitzi.

En 1997 Anjel Lertxundi (Orio, 1948) escribió *Martín Ugalde: leialtasun baten historia. Glosak*. La nueva edición que se ha presentado en Bastero completa estas glosas y es un libro publicado con motivo del centenario del nacimiento del escritor andoaindarra. Martin Ugalde recibió aquel año la mención honorífica en los Premios Rikardo Arregi de Periodismo, en reconocimiento a su gran aportación al periodismo en euskera. Ese mismo año fue nombrado hijo predilecto del pueblo de Andoain. El libro fue un sentido regalo del escritor de Orio a Ugalde, fruto del aprecio mutuo y de la estrecha relación que mantenían ambos escritores.

En el acto de presentación, el concejal Alex Huitzi ha explicado que "el libro se agotó inmediatamente después de la primera edición y se ha echado en falta desde entonces, ya que ha tenido demanda durante años y no ha habido acceso". En palabras de Huitzi, "esta reedición viene a responder a esa necesidad y a cubrir y completar esta carencia". El concejal ha explicado que esta nueva y completa edición recoge la narración de los hechos desde 1997 hasta 2004, año en el que falleció Ugalde. De esta forma, "El nuevo libro abarcará toda la vida del escritor de Andoain, y lo completará ampliamente, y queremos que todos y todas las andoaindarras puedan así leer y conocer la vida de Martin Ugalde".

De esta manera, el libro se ha entregado gratuitamente en la presentación de hoy y también se distribuirá gratuitamente en la entrega del Premio Rikardo Arregi de Periodismo que se celebrará el próximo viernes 19. Para llegar a la ciudadanía, el Ayuntamiento de Andoain hará llegar el libro a los inscritos en el Censo del Euskera, un ejemplar por unidad familiar. Fuera de estas entregas, las personas interesadas podrán adquirir un ejemplar en las oficinas del Departamento de Euskera de Urigain hasta agotar la edición.

**Andoain, 15 noviembre de 2021.**